

## ARAZO EGOERA

# BASOEN DIAGNOSTIKOA

**ARLOA:** Biologia, Geologia

**MAILA:** Batxilergoa -Lanbide Heziketa

## 2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



## TESTUINGURUA

Biodibertsitateari eta Zerbitzu Ekosistemikoei buruzko Gobernu Arteko Plataformak (IPBES) 2019. urtean argitaraturiko txostenaren arabera, gaur egun munduan dauden zortzi milioi animalia eta landare espezieetatik milioi bat desagertzeko arriskuan daude, eta hamarkada bakar batean desagertu litezke, neurri eraginkor, premiazko eta erabakigarriak hartzen ez badira.

Asko dira biodibertsitatearen galera, neurri handi batean, habitaten endekapen edo suntsitzearen ondorio dela ebatzen duten mundu mailako ikerketak. Ekosistemen egoera kaltetzeak eragina izan dezake haiek gizarteari eskaintzen dizkioten zerbitzuetan ere (ekosistema zerbitzuak).

## ARAZOA

Gure lurraldean gaur egun mehatxatuta dauden hainbat bizidun espezie baso ekosistemei lotuta daude. Baita gure eguneroko jarduerak bermatzeko behar-beharrezkoak ditugun hainbat onura ere (kalitatezko ur hornidura, lurzoru emankorrak, aire garbia, etab.).



Komunitate zientifikoak eta erakunde publikoek baliabide ugari eskaintzen dizkigute gure basoen egoera ezagutzeko, baita ekosistema horiek hobetzeko helburuak finkatu ere:

- Aranzadi Zientzia Elkartearen [Gure Basoak weba](#)
- [Lur erabileraren mapak](#)
- [GeoEuskadi](#) > Menua > Nekazaritza > Baso Mapa
- [Batasunaren intereseko basoetako habitatek Euskal Autonomia Erkidegoan duten kontserbazio egoeraren lehen ebaluazioa](#)
- [Euskadi 2030 Agendako](#) 15. Garapen Jasangarriko Helburua (50. orrialdea)

## XEDEA

Baso naturaletako ekosistemen egoera kaxkarra identifikatzea eta haiek berreskuratzea duen garrantziaz jabetzea. Etorkizun jasangarri bat eraikitzeke baso ekosistemen alde egiteko estrategiak identifikatu eta komunikatzea.

---

## HELBURUAK

- Baso naturalak zer diren eta zein ezaugarri dituzten ezagutzea.
- Baso naturalek gure lurraldean izango luketen hedapena identifikatzea (landaredia potentziala).
- Egungo baso naturalen egoera (azalera, aniztasuna, egitura, funtzioak, etab.) ezagutzea eta ekosistema horien kontserbazio egoera aztertzeko parametroekin trebatzea.
- Herri edo eskualde mailako gaur egungo lur erabilera ezagutzea.
- Ingurune naturalak jasandako eraldatze prozesu sakonaz jabetzea eta horrek dakartzan ondorioen inguruan hausnartzea.
- Lurralde mailako jasangarritasun politikak ezagutzea eta, horietan oinarrituz, hausnarketa prozesu bat abiatzea.
- Erakunde publikoek informazioa zabaltzeko erabiltzen dituzten kanalak ezagutu eta erabiltzen ikastea.
- Informazio kanal horiek dituzten abantailak eta mugak identifikatzea.
- Lurralde politiken inguruko iritzi kritikoa sustatzea.
- Errealitatea eta etorkizuneko erronkak kontuan hartuz, ekintza edo estrategia alternatiboak planteatzeko gaitasuna lantzea.

---

## ATAZA

Herri edo eskualde mailako baso naturalen diagnostiko bat egitea, eta, etorkizunera begira, jasangarritasun helburuekin bateragarria den planteamendu bat egitea egoera hori hobetzeko. Ideia nagusiekin artikulu bat idatzi prentsan argitaratzeko.

---

## JARRAIBIDEAK

- Naturan hezten proiektuak gomendaturiko **bideoak ikusi** gaian murgiltzeko.
- Aztertu nahi den eremuko **landaredi potentziala zein den identifikatu**.

## **Naturan hezten**

- Gaur egungo **lur erabilera nolakoa den aztertu** (erabilera nagusiek hartzen duten azalera eta portzentajeak atera: Baliabidea: [Lur erabileraren mapak](#)).
- Landaredi potentziala eta gaur egungo lur erabilera **konparatu** (berezko landaredia hori zenbateko azalera mantentzen den identifikatu).
- Baso naturalen kontserbazio egoera ebaluatzeko erabiltzen diren parametro eta irizpideak identifikatu, eta horrelako ebaluazio bat modu sinplean egiteko **metodologia bat garatu** (check-list antzeko bat).
- Geratzen diren baso natural horien kokapena identifikatu ([GeoEuskadi](#) bisorean esaterako), eta haien ezaugarriak aztertu eta **bertara joan** egoeraren ebaluazio bat egiteko (landaredi espezieak identifikatu, zuhaitzen enborrak neurtu, egitura konplexutasuna behatu, egur hilen bolumena estimatzen saiatu, etab).
- Bildutako informazioarekin, herri edo eskualde mailako baso naturalen **diagnostiko bat egin**.
- Herri edo eskualde mailan Eskadiko 2030 Agendako 15. Garapen Jasangarriko Helburua garatzeko **etorkizunerako proposamenak egin**, basoen esparruan hobekuntzak planteatu.
- Prozesua eta ikaspena ebaluatu (**koebaluazioa eta autoebaluazioa**).